

30/ ostirala **18:30** Elizan

KLARINETE ENTZUNALDIA

Gonbidapenak Loatzo musika eskolakoek banatuko dituzte.
 · (Loatzo musika eskolak antolatuta)



12tik 25era Herri eskolako aretoan

BALIO ERANTZIA: EDERTASUNARI BURUZKO GOGOETA

61 irudiz eta hitzez osatutako erakusketa, Ekaitz Goikoetxea eta Josu Marotoren eskutik.
 Astelehenetik ostiralera: 17:00etatik 19:00etara
 Larunbat eta igandean: 11:00-13:00 eta 17:00etatik 19:00etara
 Bisita gidatua apirilaren 17an 18:30etan.

- Euskaraz
- Helduentzat
- *Bisita gidaturako gonbidapena eskatzen du*
- (Irurako emakume taldeak antolatuta)



IRURAKO HAURRESKOLA

12tik 21era Irailean, Urrian edo Azaroan

Haurreskolan hasteko izenemateak.
 Apirila, Maiatza, Ekaina edo Uztailean hasteko galdetu 943 693 311 telefonoan edo irura.irura@haurreskolak.eus



XARE TXAPELKETA 2021

14an hasita, **TRINKETEAN**

- GAZTETXOEN XARE IREKIA asteazkenetan
- GAZTEAK XARE IREKIA ostegunetan
- EMAKUMEAK XARE IREKIA ostiraletan
- GIPUZKOAKO XARE TXAPELKETA – JUBENILAK ostiraletan Irurako APP-an zehaztuko dira partiduko bakoitzeko ordutegi eta jokariak.
- (Ametsa pelota elkarteak antolatuta)



DESKARGATU APP BERRIA



OHARRA
COVID-19aren inguruko oharra www.irura.eus webgunean aurkituko dituzue.

NOTA
 Toda la información en castellano en www.irura.eus o en la oficina de cultura



euskara



castellano



APIRILA



Apirilak 30

URMUGA
 mendiak eta musika



URPEKAKARIAK
 Apirilak 18

14/ asteazkena 18:30 Liburutegian

**IRAKURLE TALDEA:
MAITASUN
IRAKURKETAK**

Jakin aldizkariko 233-234 zenbakiko Lorea Agirrerren "Maitasuna maitasuna baino askoz gehiago da" artikulua irakurriko dugu, maitasunaren ideologiaz hausnartzeko. Autorea bertan izango da.

- Euskaraz
- + 16 urte
- Informazioa: irakurletaldeairura@gmail.com



16/ ostirala 18:30 kulturunean

ANNAPURNAREN MAGALEAN PAUSOZ PAUSO

Ikus-entzunezkoa

- Euskaraz
- Publiko guztia
- *Gonbidapena eskatzen du*
- (Irura Bizi elkarteak antolatuta)



18/ igandea 17:30 San Migel Plazan edo kulturunean
URPEKAKARIAK

Bertso antzerkia

Modu sotil eta umoretsuan, ikuslerik txikiak beren gorputzei begira jarri eta aniztasunaz, sexualitateaz, genero-rollez... hausnar dezaten zirikatzea helburu duen ikuskizuna.

- Euskaraz
- 6-11 urte
- *Gonbidapena eskatzen du*



23/ ostirala 17:30 San Migel Plazan
BIZI GIRA... KUTXA BIRA!

Kutxari harrera eta ekitaldia

- Publiko guztia
- *Gonbidapena eskatzen du*



25/ igandea 9:00 – 13:00 San Migel Plazan
IBILALDI NEURTUA IRURA-LOATZO-IRURA

1,2,3 edo lau kideko taldean, plazatik Loatzo Mendira joan eta etorri, bi aukera erdiko kontrol-puntu batetik igaroz. Txikienez ibilaldi laburragoa Aristiko pistaraino. Opariak zozketatuko dira parte-hartzaileen artean. Taldeak izena emandako hurrenkeran aterako dira minutu bateko tartearekin.

Norberak eraman behar ditu jan edo edatekoak.

- Publiko guztia
- *Gonbidapena eskatzen du*



30/ ostirala 18:00 kulturunean
URMUGA

Urmuga proiektua Mendi Film lehiaketan aurkezteko aurredokumentalaren proiektioa.

Felipe Uriarte espedizio buruak eta Migel Zeberio zuzendari artistikoak azalpenak emango dituzte eta solasaldia egongo da partaide eta gonbidatuekin.

- Euskaraz
- Publiko guztia
- *Gonbidapena eskatzen du*

